



ANDOAINGO UDALA



Osasunaren aldeko hiztegia banatu du Andoaingo Udalak herriko etxeetan

Aste honetan zehar zure etxeko postontzian hiztegi bat jaso duzu. Hiztegi guztiak bezala, zalantzak argitzea du helburu honek ere. Hiztegi berdea da, osasuntsua, helburu kolektibo bat duena; hots, birziklapena eta osasuna sustatzea.

"Hondakinak sailkatzeko hiztegia" etxe guztietan erabilgarria izan dadin osatu dugu. Gero eta etxebizitza gehiagotan dugu birziklatzeko joera, nahiz eta jakin badakigun oraindik beste asko geratzen direla dinamika honetan hasteko. Baina gero eta bitarteko eta abantaila gehiago ditugu birziklapenean murgiltzeko: Sailkatzeko edukiontzia ditugu etxetik hurbil, hobari ekonomikoak eskuratzeko aukera dugu tasetan, eta orain hiztegi honekin, egunerokoan izan ditzakegun zalantzak argitzeko tresna ere izango dugu.

Hiztegi honekin urrats berri bat eman nahi dugu. Badira hilabete batzuk sortzaile bereziekin lanean hasi ginela eta baita ere hiru auzoetan errefusa txiparekin ixteko proba pilotoa martxan jarri genuela. Prebentzioa, murrizte eta birziklapenaren aldeko neurriak hartzen ari gara, baina horretarako nahitaezkoa da herritarrak bat egitea helburu hauekin. Beraz, oraindik birziklapenean murgildu ez direnei lehenbailehen hastera animatu nahi ditugu. Gure ingurugiroa zaintzea, eta etorkizun osasuntsu baten alde egitea, egin dezakegun inbertsiorik ederrena baita. Hau gugandik hasita egin dezakegu.

Andoainen, 2018ko maiatzaren 11n

